

Kooperazio lanen erakusketa Mondragon Unibertsitatean

2011/03/23

Mondragoneko kooperatiba esperientzia Leintzeko bailaran hasi zen eta gero Euskal Herri osora zabaldu zen. Esperientzia hau bultzatu zuen indar-ideia hitz soil batekin adierazi daiteke: elkartasuna. Elkartasuna munduan zehar zabaltzearen desioak nazioarteko kooperazio lan egitera bultzatu gaitu.

Leintzeko bailaran kooperazioan lan egiteko bi era aipatu daitezke besteak beste: Mundukide fundazioa eta Elkarhezitzen Garapenerako hezkuntza proiektua. Bailarako 5 GGKEk bultzatzen dute azken proiektu hau eta AMS-Mundu Solidarioak kudeatzen du gaur egun. GGKE txiki honek garatzen dituen jarduerak erakutsi nahi dizkizuegu, eta zuen laguntza eskatu; mundu kooperatiboan ere krisi garai honek eragin dituen zailtasunak gainditu ahal izateko.

Erakusketan 90. hamarkadatik gaur egunera arte departamentuko pertsonak garatutako lanak erakutsiko dira. AMS-Mundu Solidarioak prozesu honetan beste GGKEkin egin du lan: Copade edo Mugarik Gabeko Ingeniaritza; azken honekin karrera-amaierako proiektuak garatu ditu, eta hauek erakusgai egongo dira. Gaur egun, AMS-Mundu Solidarioak Elkarhezitzen heziketa proiektuaren lidergoa darama, bailarako beste 4 GGKEkin batera: Harreman, Serso, Hiruatx eta Mugarik Gabeko Ingeniaritza.

YouTube: <http://www.youtube.com/user/AMSMunduSolidarioa>



AMS-Mundu solidarioa